

## COSPLAY LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Mozorroa zerrenda honetako gaiari bati buruzkoa izango da:

\* Manga.

\* Anime.

\* Bideo joku japoniarrak.

\* Kultura japoniarra: jpop, historia, programak..

- Lehiakideak **bere pertsonaia antzeztu beharko du**, bere hizkera, kiñuak, graziak, etab... (cosplaya hau da, ez da mozorro lehiaketa soil bat, pertsonaiaren barruan sartu behar zara, epaileek bere balorazioan kontutan izango dute.

- Motsukorak antolatutako Manga ihardunaldietan mozorroa ezin da errepikatu, saria irabazi izan al ez. Beraz mozorroa ezin da errepikatu urte batetik bestera. (Aurkeztua posible izan arren ez du lehiaketa irabaziko nahiz eta mozorro onena izan).

- Sariak izango dira:

\* Lehenego saria.

\* Bigarren saria.

\* Taldean Cosplaya.

- Lehiaketa larunabatak **18an ospatuko da arratsaldeko 17:30etatik aurrera.**

- Elkarateak aukeratuko du epaimahaia.

- Lehiaketak maila nahikoa ez badu, ez dira sariak banatuko.

## KARAOKE LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Motsukora ihardunaldietan dagoen estandean aurkitu ditzakezue abestu ahalko diren abestiak.

- Lyricsak edo abestiaren letrak paperean guk geuk jartzen ditugu.

- Abestu gura duzuen abestia, listan baldin ez badago, lyricsekin batera ekar dezakezu. horretarako, informazioa ematen den estandean MP3 batetan abestia utzi dezakezu. Lehiaketa hasi orduko abestia ez baduzu, lehiaketatik kanpo geratzeko arrazoia izan daiteke.

- Sariak dira:

\* Lehenego saria.

\* Bigarren saria.

- Lehiaketa **larunbatak 18an ospatuko da 18:30etan** Cosplay ostean.

- Elkarateak aukeratuko du epaimahaia.

- Lehiaketak maila nahikoa ez badu, ez dira sariak banatuko.

## DDR LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Lehiaketa kanporaketa erronden bitartez egingo ondoko eran:

\*Lehenego klasifikazio errondatik hoberen egiten duten laurak igaroko dira ( biko errondak izango dira denak jokatuarte). Finalerdia 2 kanporaketa binaka lehiatuko direnak. Finala bi lehiakideren artean izango da.

- Erronda bakoitzean era aleatorio batetan aukeratuko da abestia, modoak eta mixa elkarteak erabakiko du.

- Sariak:

\*Lehenengo saria.

- Lehiaketa **larunbatak 18an 11etan** ospatuko da.

## **YINKANA OTAKU LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA**

- Lehiakideek 2 ta 5 arteko taldeak eratuko dituzte, eta taldearen ordezkari edo kapitaina aukeratuko dute.
- Lehiaketa eguna da denpora aldetik duten topea.
- Lehiaketaren helburua aurkezten diren probak gainditzean datza.
- Talde irabazlea proba guztietatik puntu gehien jaso izan duena da.
- Proba bakoitzak bere araudia dauka.

## FAST-MANGARA LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

Denbora jakin batean manga marrazki bat ezaugarri aleatorioekin margoztean datza.

Antolatzaileek honako aukera hauek prestatu dituzte:

- Gaia.
- Batzeko objektuak.
- Batzeko ekintzak (\*).
- Beste zenbait aukera.

(\*) Ekintza bakoitza gerundio eran antzeztua izan behar da, hau da, jazarri aditza, jezartzen modrua margoztuko da, ekintza burutzen ari da, oraindik ezta bukatu. Hori dela eta mangan pertsona bat jazarrita agertzen bada, ez da onartuko izan ere ekintza bukatuta dago.

\* Era aleatorio batetan gai bat, lau objektu ta 3 ekintza lortuko dira ( zenbakiak aldatu ahal dira), lehiaketan **BEHARREZKOA da elementu guztiak agertzea**, lehiatzen duen mangak elementu guztiak agertuko ez balira, kanporatua izango da.

\* Mangan margoa, gidoia, elementuen arteko edertasuna, oreka ta bukaera kontutan hartuko dira. Ka

\* Nahi dan beste orri aurkeztu daiteke.

\* Margoaren estiloa manga izan behar da.

\* Manga margozteko materiala ihardueratan ematen dena izango da ( arkatza, borragoma, margoak, errotulkiak...).

\* Lehiaketak bi ordu irauten du baina aldaketaren bat egon daiteke.

Oso garrantzitsua da aukeratutako ezaugarri guztiak kontutan izatea, era zuzenean. Lehiaketara aurkeztutako manga batek ere ez baditu ezaugarri guztiak betetzen ez da saririk banatuko.

- Sariak dira:

\* Lehenengo saria.

- Lehiaketa **ostiralak 17an ospatuko da arratsaldez.**

## KOF LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Kanporaketa bidezko lehiaketa bat denez sari bakarra dago.
- Partehartzaileak mugatuak dira, lehiaketa eskema jarraituz (8/16/32).
- Antolakuntzak jarriko du kontsola, mandoak ta lehiaketako jokuak ( king of Fighters 98 Ultimate Match).
- Lehiaketa **16an osteguna 17:15etan** izango da.

## MANGA PARTYRAKO ARAUTEGIA ( IRAKURRI PARTIDA JOKATU ORDUKO)

- Bi ta bost arteko taldeak egingo dira ( taldeak ugariak badira alda daitezke)
- Taldeak helmugara iritsi behar dira Manga ta Animeari buruzko ezagutza erakutsiz.
- Dadua bota ostean kasila batera erortzen zara, kasila horretan proba bat gainditu behar duzu, gainditu eskero bertan geratzen zara, eta huts egin eskero bueltatu egiten zara lehengo kasilara.
- 4 kasila normal daude:

\* Galderak: ohizkoak, mota guztietakoak. Taldeak erantzuan adostuko du.

\* Mimika: Txarteleko hitza taldekideek igartzean datza denpora barruan, taldekide batek egiten dituen gestuekin. Taldeak erantzuna adostu beharko du, ezin izango da egin berbarik, ez soinurik ez eta onomatopeiarik. Mailak: serieak ta ekintzak.

\* Tabu: Lehiaketa txarteleko hitza igartzean datza denpora mugatu batean, horretarako taldekide batek edozein hitz erabili dezake igarri behar den hitza izan ezik, beste taldekideek hitz hori igarteko. Taldeak erantzuna adostu behar du, debekatutako hitzaz gain ezin dira adierazi autoreak edo autore horren lanak, esaterako ezin da spiderman hitza esan Stan Lee bada berba, edo We will rock you esan Queen bada berba, edo abestien doinua tarareatu).

- Kasila bereziak batzuk daude:

+ Reaper: Galdera erantzunezinak.

+ Items: Kasila berezi hontan erori eskero ezaugarri berezia duten itemsak erabili ahal dituzu.

- Helmugara lehendabizi heltzen denak irabazten du, edota denporarik ez badu emoten, helmugatik hurbilen gelditzen den taldea.

- Mailak agortzen badira, galdera orokorrak egingo dira.

- Lehiaketa **astezkenak 15 ospatuko da 17:15etan.**

## WARIO WARE LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Sari bakarra dago lehiaketa kanporaketa sistema jarraitzen duelako. Erronda bakoitzeko partehartzaileek miniprobak burutuko dituzte irabazle bat geratu arte.
- Partehartzaileak mugatuak dira, lehiaketa eskema jarraituz (8/16/32).
- Antolakuntzak jarriko du kotsola, mandoak ta lehiaketako jokuak.
- Lehiaketa **ostegunak 16 arratsaldeko 17:45ean** izango da

## JAN KEN PON LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA.

- Harri, orri ta guraize jokua da baina elementu fisikoak kontutan hartzen ditu.
- Erronda bakoitzeko irabazlea lehengo 3 puntu batzen dituen izango da.
- Puntu bakoitza irabazten da harri, orri ta guraize jokoan, jotailuzko mailu bategaz aurkariaren burua kolpea emonez.
- Puntua ontzat hartzeko, jostailuzko mailuak zarata atera behar du, zalantza kasuan epaileak erabakiko du.
- Galtzaileak burukoa izango du babesteko, mailuak burukoan kolpatzen badu, aurkariak ez du punturik lortuko.
- Joku bat da, indarkerigabea, kolpe indartsurik barik, etab. Horrelako kasuren bat eman eskero lehiakidea kanporatua izango da.
- Partehartzaileak mugatuak dira, lehiaketa eskema jarraituz (8/16/32).
- Sari bakarra dago kanporaketa bidezko lehiaketa bat delako.
- Ostiralak **17an arratsaldeko 19:30etan** ospatuko da lehiaketa gutxigorabehera.

## MARIO KART LEHIAKETAN PARTEHARTZEKO ARAUTEGIA

- Sari bakarra dago kanporaketa bidezko lehiaketa bat delako.
- Partehartzaileak mugatuak dira, lehiaketa eskema jarraituz (8/16/32).
- Partehartzaile bakoitzak bere DS-a ekarri ahal du Mario Kart DS jokuekin. Lehiaketa honetan sorpresa bat egon daiteke.
- Lehiaketa **ostegunak 16an arratsaldeko 18:30etan** izango da.

## RAMEN LEHIAKETAKO ARAUTEGIA

- Partehartzaile bakoitzak Ramen bol bat jan beharko du. Ramena berehala egiten diren fideo sopa antzekoak izango dira.
- Irabazlea ontzia lehendabizi usten duena da, hau da, fideo guztiak jan behar ditu ta sopa guztia edan.
- Fideoak txinatar paliloekin jan beharko du. Paliloez gain partehartzaile bakoitzak ura izango du, baina soilik proba amaitzen denean edateko, ura denpora aurretik edateak lehiaketatik kanpo geratzea suposatzen du.
- Lehiaketan partehartzeko partehartzaileak mugatuak dira.
- Lehiaketa **ostiralak 17an arratsaldeko 19etan** izango da.
- Motsukora elkartea ez du hartzen bere gain partehartzeileek izan dezaketen arazoak fideoak jatearren. Lehiaketan partehartzeak suposatzen du arautegia irakurri ta onartu izana.

## ROCK BAND LEHIAKETARAKO ARAUTEGIA

- Lehiaketa ondoko kanporatze sistemaren bidez egingo da:  
Lehenengo klasifikazio errondan 4 hoberenek aurrera egingo dute.  
Finalaurdenak  
Finala.
- Erronda bakoitzean era aleatorio batetan abesti bat aukeratuko da.
- Taldeak 4 pertsonagatik osatuta egongo dira.
- Sariak dira:
  - \* Lehenengo saria.
- Lehiaketa ostiralak **17 arratsaldeko 17:00etan** ospatuko da.